


# GETARIAKO HISTORIAZ LOTURAK SORTZEN

KANPOTARREI HARTZEKO ETA BERTAKOEI ERANTZUTEKO IRISGARRITASUN ELEMENTUA



**Gradu Amaierako Lana 17/18** - Zuzendaria: **Ibon Telleria Julian** - Ikaslea: **Garazi Aranguren Alberdi**



AURKIBIDEA:

> LABURPENA .....	-02-
> KOKAPENA .....	-03-
> ANALISIA .....	-08-
> HIRIGINTZA .....	-11-
> PROIEKTUA .....	-13-
> ERANSKINA 1_Planoak .....	-XX-
> ERANSKINA 2_Analisi historikoa .....	-XX-
> ERANSKINA 3_Argazki bilduma .....	-XX-
> ERANSKINA 4_Lan koadernoak .....	-XX-


### LABURPENA:

Getariak gaur egun dituen puntu ahulak aztertu, eta ateratako ondorioei erantzuteko proiektu bat proposatzen da. Hirigune historikoaren mugan kokatuko da proiektua, bi mundu hauen artean, herria (goian) eta portua (behean), zabaltzen ari den amildegian zubi bat eraikiz.

Proiektuaren helburua HARRERA eta IRISGARRITASUN ELEMENTU bat sortzea da, irisgarritasuna bere aspektu fisiko, kultural zein historikoan ulertuta. Elementu honek bertako biztanleei, kanpotik datozen mariñeiei, eta munduko ertz guztietatik gerturatzen diren turistei erantzutea bilatzen du.



## KOKAPENA



**GETARIA** Kantauri itsasoaren itsaslabarrean dago, Gipuzkoan. Ekialdera Zarautz aurkitzen da, hegoaldera Oikia eta Aizarnazabal eta mendebaldera Zumaia. Muga natural nagusia itsasoa du.

*"Zeruaren eta itsasoaren artean, Garate mendiaren magalean patxadatsu dago Getaria denboraren joan-etorrian, muturrean arratoi ospetsua duela, lehen San Anton uhartea zena eta gizakien lanek lurmutur bihurtu zutena."*

Herriaren izena "Cetaria" hitz latindarretik dator, "Arrain Kontserbak egiteko Asentamendua" esan nahi duena. 1209an eman zitzaion hiribildu titulua, baina aztarna arkeologikoei esker badakigu gizakiaren presentzia etengabea izan dela bertan historiaurretik gaur egun arte. Bere herrigune historikoa Erdi Arokoen itsurakoa da eta sei kalek osatzen dute, trabeskako kalekkek gurutzatuta. Arrantzaleen ikuspuntutik, Getaria, itsasoari muga ezartzen dion itsaslabarra da (itsasotik begiratzen baitute beraiek).


XI. mende inguruan hasi ziren bertako biztanleak itsasoratzen, eta San Anton irlak eskeintzen duen babesari esker, babes-portu garrantzitsua bihurtu zen berehala.


Bale arrantzak eta itsas-espeditzioek itsas-gizon trebeak eman zituzten. Hauen artean ezagunena Juan Sebastian Elkano dugu, bere tripulazioaz Nao Victoria itsasontzian 1519-1522 artean munduari bira osoa eman zion lehena.

Getariaren garapena mariñel honen desenbarkuaren urtehurrenekin lotua eman da, bereziki **portuarena**, baina azken hau gaur egun egoera tamalgarrian aurkitzen da. Honek, Getariaren profila erabat eraldatzeaz gain, **herriarekin oso harreman gutxi** erakusten du, plano guztiz ezberdin batean geldituz.

"Mundubira 500" programa abiapuntu hartuta, proiektu honen bidez, **bi mundu paralelo hauek (herria eta portua) elkar topatzeko estrategiak definitu nahi dira**. Honetarako, Getariako portuko puntu ahulak detektatu (erabilera gabeko eraikinak, erortzeaz daudenak, etekinik gabeko eremuak...) eta esku-hartzeak proposatuko dira.

Gradu Amaierako Proiekturako hauetako unitate bat hartu eta landuko da: **Getariako Hirigune Historikoaren mugan dauden "Zarautz Jauregia" eta "Tintaleku" eraikinak hartuz, bi plano paralelo hauen arteko irisgarritasun elementu bat garatuko da, herritarrei erantzungo diona, eta kanpotik datorrenari bertako giroan txertatzen lagunduko diona.**





### ERAIKINAK


Proiektua, Getariako Hirigune Historikoaren muga dauden "Tintaleku" eta "Zarautz Jauregia" eraikinetan garatuko da, **hutsik** eta **kokapen estrategikoan** daudenak.

### ZARAUTZ JAUREGIA (hiribilduaren altueran)

**Erdi Aroko jauregi bat** da, Kale Nagusiaren eta Aldamar kalearen artean kokatua. Getariako Hirigune Historikoaren erdian txertatzen da, San Salvador elizaren azpian. **Kultura-ondare moduan kalifikatua** dago eta **Getariako monumentu multzoaren parte** da.

Bi konpartimendutan banatzen da: **Zarautz Jauregia** (handiena, aztarnategia biltzen duena eta elizaren arbotante bat sartzen zaiona) eta **Ochoa Ibañez de Olano** jauregia (estu eta luzea dena, bertan hormigoi armatuzko solairuak eginak daude). Bere harrizko hormek **Kale Nagusi aldetik 15m-ko altuera** dute, eta **11m Aldamar kaletik**; zabalera, **oinarriko 1,25m-en eta gailurreko 0,70m-en artean** dabilta.

2004-2007 arteko indusketa lanetan **garrantzi handiko aztarnak aurkitu ziren, baina ez probetxu ateratzeko modua. Gaur egun ia-abandonatua** dago. Egitura errefortzatzeko egindako lanei esker hormak tente mantentzen dira, baina aztarnategia urez eta zaborrez betetzen da.




### TINTALEKU LONJAK (portuaren altueran)

1969an **Jose Maria de Yturriaga Dou** Arkitekto doktoreak "Elkano arrantzale kofradia"-ren enkargupean altxatutako **biltegi-eraikin bat** da. **Kokapen oso berezian** aurkitzen da: Errepide nazionala portuaz konektatzen duen bidearen eta Aldamar Kalearen arteko kota ezberdintasuna **3 solairu independenterekin** betez. Itsaslabarraren eta portutik Arzapera igotzeko arrapalaren artean mehartua dago. Estalkian **terraza** zabal bat dauka **herriko bista hoberenak biltzen** dituen (Portu guztira, San Anton irlara eta Zarautzera begira dagoen panoramika hartzen du).

Egitura **Hormigoi Armatuzkoa** da, bi norabideko habeez eutsia. Fatxadetako irekidura horizontalak **egurrezko zelosiez itxiak** daude, bertan bildutako arrantza elementuen aireztapena bermatzeko. Itxura gogorra badu ere, ez du inongo momentuan garrantzia hartzen.

Eraikinaren **ingurugiroan aldaketa garrantzitsuak** eman dira. Portuaren zabalkuntza egin eta errepidea sartu zutenean, honen traza zabalak kanporagotik marraztu zen, zentzurik gabeko **txoko zigortu batean bezala utziz Tintaleku** eta bere alboko tunela.





MALKORBE HONDARTZA ETA PORTUA



KATRAPONA ENPARANTZA



ZARAUTZ JAUREGIA



TINTALEKU LONJAK





## ANALISIA

\*Analisi Historikoa\* eranskinean aurki daiteke azalpen sakonagoa.

- **Analisi Historikoa:** herriaren nondik norakoak eta orubean izandako eraginak ezagutzeko.
- **Gaur egungo egoeraren analisia:** Egin diren eta aurreikusten diren aktuazioak ezagutzeko.

## ANALISI HISTORIKOA

Irlak ematen duen babesari esker Getaria bizitzeko leku egokia izan da antzinarotik.

K.a. I. m. erromatarrek asentamendu bat kokatu zuten kabotajerako.

V. m. eraikinen tipologia aldatu zen, oin obaleko eraikin txikitara igaroz.

X. m. lehenengo elizaxoa eta errekaen desbideraketa obrak egin ziren.

XII. m. lehen hiribilduak sortu ziren. Kostaldea estrategikoa zen itsas merkataritzagatik.

XIII. m. Gipuzkoa Gaztelako erresumaren parte izatera igaro zen. 1209an Getaria hiribildu izendatu eta harresia eraiki zen.

XIV. m. ubidea estali eta kainozulo batean bildu zituzten urak. Haren zati bat Kale Nagusia bihurtu zen. 1345ean Salbatore Deuna katedralaren eraikuntza lanak hasi ziren. Elizaren inguruan zenbait eraikin altxatu ziren, jauntxoaren gunea sortuz.

XV. m. 1420an Salbatore Deuna katedralaren eraikuntza lanak amaitu ziren. Zarauz leinukoek aldian-aldian dorrea handitzeko obrak egingo dituzte garai honetatik aurrera.

*1457rako bazen zerbait orubean. 4x10mko azalera itxiz lehen solairura harteko harrizko hormak eta egurrezko fatxada zituen, gainontzeko orubea hormatxo bidez mugaturiko baratzentzat utziz.*

*1495ean elizarekin pleitoa izan zuen honek baratzak zituen orubearen zati bat jan ziolako. Mendebaldeko fatxada eraiki zen bere 2 ate eta 3 leihoekin. Ekialdera ere itxitura zati bat eraiki zuten, baratz aldera zabaltzen zen ate batekin.*

XVI. m. 1519/09/20-1922/09/06 artean Juan Sebastian Elkanok munduari bira eman zion. 1540an portu zaharra amaitu zen eta 1575ean eliza honekin lotzen zuen malekoia. 1597/01/05ean izugarritzko sutea pairatu zuen herriak, ahulduta uzteaz gain dokumentu asko erre zituen.

*1510 inguruan mehelinaren hegoaldean sortu zen sutea eraikinera hedatu eta horma zati bat bota zuen. Berreraikuntza erretako materialekin egin zen, eta bide batez, solairu bat gehitu zen. Mehelina kenduta gainontzeko fatxadak egurrezkoak egin ziren.*

*1555-1562 artean Maria Lopez de Zarauz eta Juan Ortiz de Zarauz ezkondu ziren. Bat-egite honen ondorioz Eraikinaren iparraldeko eta ekialdeko hormak eraiki ziren bigarren solairuraino, erdian gelditzen zirenak kenduz. Obra osoa batera egin zen, exekuzio onaz eta "ofizia" baten trazas.*

*1562-1581 artean, eliza gainera zetorrela eta, bigarren solairurainoko altuera hartzen zuen arbotante bat eraiki zen jauregi barruan. Galdutako azalera konpentsatzeko hirugarren solairu bat eraiki zitzaion jauregiari elizaren kontura.*

*1597ko suteak mehelinaren hegoaldeko eraikina erre zuen, baina ez zuen horma igaro. Erretako orubea erosi eta dorrea berreraikitzean harrizkoa egin zuten. Honen fatxada zatia albokoa imitatzu egin zen, kale nagusia estetikoki zaindu behar baitzen.*

XVII. m. 1635-1639 artean harresiaren berreraikuntza eta hobekuntza lanak egin ziren. 1638ko erasoan frantsesak lurreraino iritsi ziren eta herria berriz ere suntsitua gelditu zen.

*1638ko guda nabalean eman zen lehen abandonoa, non, itsas-aldera ematen zuen fatxadaren ertza, ipar-ekialdekoa, kaltetu zen.*

XVIII. m. hainbat konponketa lan egin ziren, denboraleek atzera suntsitzen zituztenak.

*1749ko dokumentu batean jauregia hondamendi egoeran zegoela aipatzen da.*

XIX. m. 1808an, Napoleonen garai inperialan, Getaria frantsesek hartu zuen eta San Anton irlan zainketa postu iraunkorrak jarri zituzten. 1813an frantsesak erretiratzeko hastean minak lehenitu zituzten portuan. 1814an gotorlekuko harresiak bota eta artilleria Donostiara eraman zen. 1835ean Herriretako Errebala erre zuten bertatik Karlistak ez sartzeko. 1836an Karlistak elizaraino iritsi, bertan babestuak zeudenak aterarazi eta hiribildua erre zuten. 1847an kaia eta portua ia erabat berreraiki ziren. 1856an uharteak funtzio militarrik izateari utzi eta laborantzarako deforestatu zen. 1885/02/22an Alfonsito XII.aren aginduz harresiak eraitsi ziren.

*Mende honetan eraikinean aktibitatearen industrialak garatu zen. Iparraldeko konpartimenduan eskabexera jarri zen, eta hegoaldekoan saladeroak. Egituraren ordezkapena eta leihoen txikitzeak eman ziren garai honetan. Iparraldeko konpartimenduaren dimentsio handiak zirela eta, denborarekin produkzio guztia behe solairura pasa zen.*

*Konbentzio gerra, Independentzia gerra eta Gerra Karlistak eman bitartean koartel bezala ibili zen.*

XX. m. Elkanoren mundubiraren 4. mendeurrena ospatuz herria erabat itsuraldatu zen. Hauek dira egin ziren obra nagusienak: Portuko ostatu berria (1917), portu berria (1919), udaletxea (1922), Elkanoren monumentua (1924), N-634 eta portu berria lotzeko errepidea (1932-1935), eskoletako eraikina (1948), kai muturraren desmuntaketa eta arrapalaren eraikitzea (1953), portuaren zabaltzea (1958), San Anton mendiaren birlandatzea (1963), Tintaleku lonja eraikina (1973), Kirol Portu berria (1994), Salbatore Deuna elizaren berritzea (1995) eta Arrain Lonja berria (1999).

*Abandouaren eta mantenu faltaren ondorioz eraikina asko deterioratu zen. Leihoek batzuk zentzu gabeko zulo desitsuratu bihurtu ziren, eta harriaren desgasteak itsura okerragoa eman zion. XX. mende amaieran egitura errefortzatzeko lanak egin ziren, zuloak mortairuz estaliz eta baok adreilu hutsez betez.*

*1922rako egina zegoen Artzapetik portura jeisten zen arrapala eta honen azpiko tunela. Tunel hau zeharkatuz gero itsaslabar eta artilleria kokatzeko harresi zati hondatu baten azpiko eremura iristen ziren, zeinaren gainean mataderoak, oilategia eta beste hainbat txabola eraiki ziren. Eremu honi "Txori-tonpe" deitzen zitzaion, eta bertan sareak tindatu eta lehortzeko zabaltzen ziren. Gune honetan mehertuta eraiki zen lonja eraikina. Plazari Katrapona deitzen zaio, inguru guzti horretan zabaltzen ziren bateriek tiro egitean egiten zuten "KATAPUN!" soinua deformatzioz.*


XXI. m. 2010ean Cristobal Balenziagaren museoa inauguratu zen. 2014an Anbulategia inauguratu zen. Honez gain, irisgarritasuna hobetzeko hainbat obra egin dira: parkeen egokitzapenak, eskailerak, eskailera mekanikoak, igogailuak ...


## GAUR EGUNGO EGOERA

**HERRIA**\_Getariak gaur egun 2.818 biztanle ditu (2017). Hauen %50,77a gizonezkoa eta %49,23a emakumezkoa delarik. Kulturari dagokionez, hauetatik %85a euskalduna da. Bertako dentsitatea oso altua da, 257 biztanle/m<sup>2</sup>-ko. Izan ere, udalerrira osatzen duten lurren %92a landa maldatsua da, eta beraz, herritar ia guztiak errepide nazionalaren bi alboetan bizi dira. Etxebizitza eraikin ia guztiak 3 edo 4 solairuko blokeak dira, eraikuntza berri nahiz zaharrekoak.


**LANBIDEA**\_Getariako jarduera bereizgarria arrantza izan da, eskualdeko portu garrantzitsua izan baita urteetan. Baina kostaldeko beste herrietan bezala, lehen sektorearen garrantzia murrizten joan da azken hamarkadetan. Gaur egun jarduera ekonomiko nagusia zerbitzuak dira, herriko produktu gordinaren %47a dagokiolarik, eta industriari bestalde %27.

**TURISMOA**\_Getariako historiaren garrantziak, herri-arrantzalearen xarmak, eszenatoki famatuak, gastronomiak eta txakolinak, eta kaleetan sortzen den giro herrikiak bisitari asko erakartzen ditu. Euskal Herri mailan bertatik ordu t'erdira bizi diren bixitariak gerturatzeko dira, bereziki asteburuetan, egun pasak egitera. Nazio mailan, bixitari ohikoak katalanak, madrildarrak eta andaluziarrak dira, uda pasatzera etortzen direnak. Mundu mailari dagokionez, frantsesak, ingelesak, orientalak eta amerikarrak dira gehienak, egun batzuk pasatzeko gelditzen direlarik.







II. MENDEA




XII. MENDEA




XIV. MENDEA



V. MENDEA




XIII. MENDEA




XVI. MENDEA




X. MENDEA




XV. MENDEA - XXI. MENDEA




XXI. MENDEA




1450




1550




1650




1750




1810



1880



1940



2018

## HIRIGINTZA

### ARAU SUBSIDIARIOAK:

#### "a.10. Alde Zaharreko egoitza-gunea". (ZARAUTZ JAUREGIA)

##### ERAIKUNTZA ERREGIMENA.

- Egoitza-asetamendu zaharrez osatutako azpizonak edo lurzatiak dira; beraz, zaindu beharrekoak, beren berezitasunari jarraituz, edota historia, kultur edo hirigintza arloan duten interesaren arabera. Zona hauetan, jatorrizko lur banaketa mantendu egin behar da bere alderdirik nagusienetan, eraikuntzaren morfologia espaziala bezalaxe. Era berean, **balio garrantzitsua duten eraikin eta hirigintza elementuak mantendu** egin behar dira.

##### ERABILERA ERREGIMENA

- Erabilera sustatuak: **Egoitza erabilerak.**
- Erabilera onargarriak: **Hirugarren sektoreko erabilerak**, Garajea, **Komunitatearen ekipamendua**, Erabilera nagusiekin bateragarriak diren modalitateak.
- Erabilera debekatuak: Aurreko modalitateetan sartzen ez diren guztiak. industri erabilerak ezartzea, 1. kategoriakoak direnak izan ezik.

#### "f.20. Espazio libreak". (BISTA ONA PARKERA DOAN PASARELA)

##### ERAIKUNTZA ERREGIMENA.

- Lorategiez eta zuhaitzez hornitutako eremuak
- Baimenduta dago lurpean garaje erabilerarako bakarrik erabiliko diren eraikuntzak egitea.

##### ERABILERA ERREGIMENA

- Erabilera sustatuak: **Espazio libreen erabilerak.**
- Erabilera onargarriak: Hirugarren sektorekoak, 1. kategoriako merkataritza eta hirugarren sektoreko beste hainbat erabilera (Behin-behineko izaeraz, aldi baterako ezarpenetan)
- Erabilera debekatuak: Aurreko modalitateetan sartu gabeko guztiak.

##### JABARI ERREGIMENA

- Titularitate publikoa.

#### "p.10. Portuko erabilerak". (TINTALEKU LONJAK)

##### ERAIKUNTZA ERREGIMENA.

- Oro har, portuko erabilerak ezartzera bideratutako lurzatiak izaten dira, edo baita eraikin industrial intentsiboak edo bakanak ere, funtzionalki nahiz juridikoki enpresa baten edo bat baino gehiagoren jabetzakoak.
- Baimendutako eraikinen profil eta altuera baldintzak, bai sestra gainean bai sestra azpian, kasu bakoitzari dagokion arau partikularrean ezarritakoak izango dira. Edozein kasutan ere, **eraikinaren gehieneko profila, sestra azpian, lau solairukoak izango da.**

##### ERABILERA ERREGIMENA

- Erabilera sustatuak: Portukoak.
- Erabilera onargarriak: Industri erabilerak, **Hirugarren sektorekoak, 4. kategoria arteko merkataritza, Bulegoak, Hotel eta ostalaritza erabilerak, Aisialdikoak, Gainerako modalitateak, Garajea, Komunitatearen ekipamendua.**
- Erabilera debekatuak: Aurreko modalitateetan sartu gabeko guztiak.

Arauk dioena kontuan izanda, honakoa da esku-hartzea:

#### ZARAUTZ JAUREGIA


- Balio garrantzitsuko hirigintza elementu bezala tratatuz mantenduko da.
- Behe sol. erabilera: .....Komunitatearen erabilerarako (aztarnategia eta pasorako gunea).
- Goiko sol. erabilera: .....Hirugarren sektoreko erabilerak (bulegoak, jangela eta albergea).

#### BISTA ONA PARKERA DOAN PASARELA

- Aire libreko zirkulazio espazio bat izango da.

#### TINTALEKU LONJAK

- Eraikina egoera onean dagoenez, mantendu eta erabilera berriak txertatuko dira. Merkataritza, bulegoak, ostalaritza... erabilerak txertatzeko ahalbidetuz.



HIRIGUNE HISTORIKOKO PLAN BEREZIA:

UE "15.04". Calle Nagusia nº 38 y nº 40 (ZARAUTZ JAUREGIA)

0. SÍNTESIS DE LA INFORMACIÓN URBANÍSTICA

- *Interés arquitectónico y/o histórico:* Dispone de Protección Morfológica y Protección Parcial de las tres fachadas a Calles Nagusia y Aldamar. (Decreto. 399/1999)
- *Estado de la edificación:* .....**Ruina.**
- *Grado de habitabilidad:* .....Ruina
- *Perfil de la edificación:*.....**IV a Calle Nagusia**

I. CRITERIOS Y OBJETIVOS DE ORDENACION

- **Reedificación del inmueble, teniendo en cuenta la consolidación de las fachadas como elementos singulares, y los parámetros referidos al perfil y edificabilidad de la actual.**

II. CALIFICACION PORMENORIZADA

- *Tipología de parcela*.....**a.10** (Residencial de casco histórico)

III. CONDICIONES DE EDIFICACION, DOMINIO Y USO

- El régimen de uso y edificación correspondiente a este tipo de zonas de uso pormenorizado es el establecido en las normas urbanísticas de aplicación general, pertenecientes a las vigentes Normas Subsidiarias de Planeamiento de Getaria, complementado con las determinaciones particulares contenidas en el presente Plan Especial.
- *Edificabilidad:* Se regula de forma indirecta a través de la definición de la forma de la edificación, (envolvente) conforme a las alineaciones, fondo edificable, perfil, cota de cornisa y pendiente de cubierta, definidas en los gráficos de la presente O. P.
- *Parámetros reguladores de la forma de la edificación:*
  - Perfil de edificación:.....IV a Calle Nagusia
  - Altura de la edificación:.....Se define en el gráfico adjunto.
- *Usos de planta baja:* **Se destinará al uso de equipamiento comunitario.**
- *Alineaciones:* Las definidas en los gráficos de la presente Ordenanza Particular.
- *Condiciones de parcelación:* Se consolidan las actuales condiciones de parcelación.

IV. RÉGIMEN DE PROTECCIÓN

- *Nivel de protección:*.....**Protección Morfológica**
- *Protección parcial:*.....**Fachadas completas a las Calles Nagusia y Aldamar.**
- *Ord. de edificación aplicable:*.....Ordenanza de edificios sujetos a protección morfológica.
- *Fachadas protegidas:*.....Régimen de los elementos objeto de protección parcial.
- *Tipo de intervención constr.:*.....**Consolidación, Reedificación, Reforma.**
- Se implantará un **sistema estructural compatible y coherente con los muros preexistentes, a base de elementos de madera.**

V. CONDICIONES DE EJECUCIÓN

- **Suelo urbano no consolidado y queda adscrita por tanto a las actuaciones de dotación.**


VI. GRÁFICOS

- Condiciones de edificación, dominio y uso


Arauk dioena kontuan izanda, honakoa da esku-hartzea:

- Eraikinaren **garrantzi historikoa eta singularitatea** kontuan izanda, bere alderdi hauek **nabarmenduko dituen proposamena** proiektatu da.
- Proposamenaren **egitura zurrunik horma aurreexistenteen kontsolidazioa bermatuko** du. Zurruntasun hori bermatzeko eta hormei nagusitasuna emateko, egitura berri hau **altzairuzkoa** izatea beharko da.
- Eraikinaren alardearen alde eginiko apustuan hormetatik bereizten den proposamen bat egin da. **Hutsune hauetan galdutako eraikigarritasuna berreskuratzeko, kaletik ikusgarria ez den puntuetan estalkiko profiletik gora irtetuko da eraikina.**


UNIDAD DE EDIFICACION 15.04  
NAGUSIA KALEA 38-40



1. JABARI BALDINTZAK PLANTA 1. CONDICIONES DE DOMINIO



3. ERAIKETARAKO BALDINTZAK SECCIONES 3. CONDICIONES DE EDIFICACION



2. ERAIKETARAKO BALDINTZAK PLANTA 2. CONDICIONES DE EDIFICACION



## PROIEKTUA

Gradu Amaierako Proiektua, Getariako Hirigune Historikoaren mugan dauden "Tintaleku" (portuaren altueran) eta "Zarautz Jauregia" (hiribilduaren altueran) eraikinetan garatuko da.

Proiektuaren ideia nagusia **HARRERA eta IRISGARRITASUN ELEMENTU** bat sortzea da, irisgarritasuna bere aspektu **fisiko, kultural** zein **historikoan** ulertuta.

Elementu honek **bertako biztanleei, kanpotik datozen marifelei, eta munduko ertz guztietatik gerturatzeko diren turisteei** erantzutea bilatzen du.

Hutsik eta **kokapen estrategikoan** dauden bi eraikin hauek hartuz (bata kale nagusia okertu eta elizaren azpitik pasatzen den tokian, eta bestea hirigunearen ertzeko itsaslabarrari itsatsita portuaren kotan), **herrikoak itsasora nahiz kanpotarrak herrira gerturatzeko bide bat** irekiko da arkitektura den tresnaz baliatuz.

Hautatutako preexistentziak aztertu ondoren kontuan izateko hurrengo ezaugarriak ikusi zaizkie:

### ZARAUTZ JAUREGIA (S. XV)

- Multzo gotikoko parte
- Harearriko harlandua
- Bi konpartimendu
- Aztarna historikoak
- Elizaren arbotantea
- Solairuak definituak

### TINTALEKU LONJAK (1969)

- Jose Maria de Yturriaga Dou
- HA habeak bi norabidetan
- Solairu independenteak
- Bere ingurunean mehartua
- Ikuspegi bikainak bertatik
- Egurrezko zelosia itxitura

Hau jakinda, hurrengoak proiektatu da:

### ZARAUTZ JAUREGIA

Eraikin honen **behe solairuan zirkulazio nodo bat** kokatuko da, Kale Nagusia, Aldamar Kalea eta Katrapona enparantza lotuko dituena. Bertatik ikusgai izango dira harrizko fatxadak, elizaren arbotantea eta lurreko indusketak, Getariaren historia ezagutu nahi duen bisitariari honen bihotzera iristen laguntzeko.

**Aztarnategiaren gainean** hormetara beso bidez eustsia egeri den **bolumen batek flotatuko** du, Jauregiko aktibitatea biltzen duten **estantziak** izango direna. Estantzia hauek **izaera pribatuagoa** izango dute, eta bertara **iristeko Olanotarren konpartimendutik** sartu beharko gara. **Komunikazio bertikalerako elementuak, gune hezeak eta intalakuntzen bideak albo honetan** kontzentratuko dira, modu honetara **Zarautzaren zatia libre** utziz. Mehelineko baoek Olanotarren konpartimenduko solairuak Zarautzaren konpartimenduko estantziekin konektatuko dituzte.

Eraikin hau proiektuari begira **"Itsas Gizonen Etxea"** izatea aurreikusi da, gaua Getarian pasa behar duten marifelek bertako kulturara gerturatzeko. Dena den, bere **diseinuari esker erabilera askatasuna baimentzen** duela aipatu behar da.

### TINTALEKU LONJAK

Eraikin honen **estalkian bigarren zirkulazio korapilo bat** sortzen da, Zarautz Jauregiko aztarnategia, Aldamar kalea, Bista Ona parkea eta Malkorbe hondartza lotuko dituena. **Komunikazio bertikalen** elementu **multzo berria Tintalekuri paralelo** kokatuko da, **itsaslabarra zulatuz** eta lonjaren solairu independenteen berezitasuna mantenduz.

**Solairuen independentzia**z baliatuz, bakoitzeko sarrera originalak ematen zion egoeraren arabera erabilera esleitu zaio. Solairu hauek **izaera publikoa** izango dute. Bigarren solairuan (Artzapetik Portura doan arrapatatik sartuta) aldizkako bulego edo komertzio txikienezko espazioa sortuko da, ikuspegi bikainek erakarrira bitutuko dena. Lehen solairua (errepidetik igotzen den arrapatatik sartuta) biltegientzat erreserbatuko da, egungo erabilera alegia. Behe solairuan (Lurraren altueran) hondartzarekin lotutako erabilerak bilduko dira: takilak, komunak, aldagelak, toldo/hamaka alokairua, surf/gimnasia zentroa eta itzaletan egoteko eremua.

Instalakuntzak karga-igogailua dagoen puntutik lotzen dira bertikalean eta **solairuetako gune hezeak atzeko hormaren parean kontzentratzen** dira. Banakera honek **taberna-sukalde-kafetegi-ari funtzionamendu bateratu bat ahalbidetzen** dio.

## EGITURA


### TINTALEKU LONJAK

Eraikinaren **egoera ona eta kokapen estrategikoa** ikusita, pare bat zuzenketa errazen bidez erabileran jartzeko proposamen bat planteatu da.

Bi norabideko habedun **egiturak presentzi handia** hartzen du eraikin guztiaren sabaian zehar, oinarrian zutabe sare erregular bat agertuz. Antolaketa honek, instalakuntzak sabaitik eramatea zailtzen badu ere, lokal edo bulego motako **estantzia txikiak jasotzeko malgutasuna** ageri du.

Proiektuan, espazio hauek erregulariki zatitu eta enpresa txiki edo handiagoak kokatzeko ibiltzea proposatzen da, bakoitzaren beharren arabera **modulu gehiago edo gutxiago okupatzen dituzten lokalak** eraikiz.

Eraikinari paralelo proiektatutako eskaileren bidez, eraikinean **bizitza sartzea** errazten da, bere solairu guztiak iristerrazago eginez.



### LOTURAK

**Eskailerrak** alboko **harkaitzeko mendia zulatuz** eraikiko dira, moztu den hormatik hegalean ateraz.

**Tunelak** Aldamar **kalearen azpikaldea zulatuko** du, Katrapuna enparatza Zarautz Jauregiko aztarnategiaz lotuz.







**Induskatutako espazioetan** zehar gabiltzan sentsazio honek eskaileretatik igo, tunel azpitik sartu eta aztarnategiraino jarraituko gaitu, lurpean ezkututzen diren **flych-en sekretuak azaleratuz**.


### ZARAUTZ JAUREGIA

Eraikina, egun den **aztarna historiko abandonatua** bezala tratu eta **bizkarroi bat txertatu** zaio barruan. Bizkarroi honen **presentzia minimoa da kanpotik**, hala, aztarnak ikustera edo pasabidetik etxadia zeharkatzera gertutatu den bixitariari **sorpresa** bat emanez.

Bizkarroia jauregiaren **hutsuneetara egokitzen** den eta honen **hormetatik eta arbotantetik aldentzen** den bolumen bat da. Aldentze hau, alde batetik argia beheraino iristeko, eta bestetik zoruko aztarnak eta fatxadetako estratoak agerian uzteko egin da. Bere busua eutsi dezan **altzairuzko barra eta tirante bidezko hiru dimentsioko egitura zurrun bat** diseinatu da, puntu estrategikoetan **besoak ateratzen** zaizkiona eta **hormetara eusten** dena. Pausu honek, **bolumena zintzilik mantentzeko ez ezik harrizko hormen egonkortasunerako** balioko du.

Hormak eta aztarnak agerian uzteko erabakiaz galdu den azalera eraikigarria konpentsatzeko, profiletik gorantz aterako da erakin zati bat, beti ere inguruko eraikinen altuerekin harmoniaz.






PROGRAMA

EREMUAREN AZALERAK:



EREMU PUBLIKOA.....	1.180 m <sup>2</sup> /l
ZARAUZ J. (4 solairu) .....	892 m <sup>2</sup> /s
TINTALEKU (4 solairu) .....	2.140 m <sup>2</sup> /s
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>4.212 m<sup>2</sup></b>

PROGRAMA ETA AZALERAK:

<b>ZARAUZ J. LAUGARREN SOLAIRUA:</b>	
- Terraza .....	116 m <sup>2</sup>
- Zirkulazioa .....	25 m <sup>2</sup>
<b>ZARAUZ J. HIRUGARREN SOLAIRUA:</b>	
- Logelak .....	124 m <sup>2</sup>
- Komunak .....	14 m <sup>2</sup>
- Zirkulazioa .....	28 m <sup>2</sup>
<b>ZARAUZ J. BIGARREN SOLAIRUA:</b>	
- Jangela .....	78 m <sup>2</sup>
- Sukaldea .....	13 m <sup>2</sup>
- Zirkulazioa .....	29 m <sup>2</sup>
<b>ZARAUZ J. LEHENEN SOLAIRUA:</b>	
- Bilera gela .....	69 m <sup>2</sup>
- Komunak .....	10 m <sup>2</sup>
- Zirkulazioa .....	32 m <sup>2</sup>
<b>ZARAUZ J. BEHE SOLAIRUA:</b>	
- Aztarnategia .....	167 m <sup>2</sup>
- Zabor gela .....	5 m <sup>2</sup>
- Makina gela .....	11 m <sup>2</sup>
- Zirkulazioa .....	28 m <sup>2</sup>
<b>TINTALEKU_ESTALKIA:</b>	
- Taberna .....	45 m <sup>2</sup>
- Zirkulazioa .....	452 m <sup>2</sup>
<b>TINTALEKU_BIGARREN SOLAIRUA:</b>	
- Lokalak .....	265 m <sup>2</sup>
- Komunak .....	89 m <sup>2</sup>
- Zirkulazioa .....	304 m <sup>2</sup>
<b>TINTALEKU_LEHEN SOLAIRUA:</b>	
- Biltegiak .....	326 m <sup>2</sup>
- Zirkulazioa .....	180 m <sup>2</sup>
<b>TINTALEKU_BEHE SOLAIRUA:</b>	
- Lokalak .....	224 m <sup>2</sup>
- Komunak .....	141 m <sup>2</sup>
- Zirkulazioa .....	141 m <sup>2</sup>
<b>BESTELAKOAK_KONEXIO ELEMENTU PUBLIKOAK:</b>	
- Tunela .....	15 m <sup>2</sup>
- Eskailerak .....	100 m <sup>2</sup>
- Igogailua .....	10 m <sup>2</sup>
- Zirkulazioa .....	1.065 m <sup>2</sup>







## INSTALAKUNTZAK

### ARGIZTAPEN NATURALA

**ZARAUTZ J.** Olanotarren jauregiaren kasuan, jatorrizko leihoetatik eta eskailerako zulotik sartuko da argia. Zarautzarren jauregiaren kasuan, jatorrizko leihoez gain bolumenaren eta hormen arteko hutsunetik sartuko da argia. Honi etekin ateratzeko, bolumenaren itxitura ia osoa beirazkoa izango da, barruko erabilaren arabera intimitatea emateko zelosiak jarritz.

**TINTALEKU** Itsaslabarrean mehartua egotean, jatorriz, argi iturri gutxiko eraikina da hau. Dituena mantentzeaz gain, eskaileraren aldetik beste argi-sarrera bat sortuko da. Argiaren sarrerari laguntzeko, solairuak jeitsi hala eskailerak diagonalean gerturatzeko doaz eraikinera, mendiaren ezpondaz bat etorritz.

### KLIMATIZAZIOA

**ZARAUTZ J.** Aireztapen mekaniko eta klimatizazioa egiteko ekipo berdina ibiliko da. UTA makina gelan kokatutako da (behe solairuan), eta banaketa sarea honetarako prestatutako hutsunean zehar joango da. Tutuak forjatuaren eta sabai faltsuaren artean joango dira, estantziatara sarea bidez konektatuz.

**TINTALEKU** Izaera nagusia zirkulaziokoa duenez, eta lokal txikiak aldizkakoak direnez, klimatizatu beharreko estantziak hormaren kontra gelditzen direnak izango dira. UTA makina gelan kokatuko da (estalkiko kafetegia atzean), eta banaketa sarea karga-igogailuaren atzeko hutsunetik joango da. Solairuetan perimetrotik zabalduko dira tutuak, estantziara iritsi arte.

### UR HORNIDURA

**ZARAUTZ J.** Ur Hotza kale erditik doan Sare Orokorretik hartu eta makina gelara eramango da. Bertako galdaran Ur Bero Sanitarioa lortu eta bi urak prestatutako hutsunean zehar igoko dira. Solairuetara iristean, hodiak perimetrotik hormari paralelo eramango dira zoru azpitik harguneraino.

**TINTALEKU** Ur Hotza kale erdiko Sare Orokorretik hartu, makina gelara gidatu eta bi urak izatean karga-igogailuaren atzeko hutsunetik eramango dira solairu guztiak zerbitzatzeko. Solairuetan sarea perimetrotik eramango da harguneetaraino.

### SANEAMENDUA

**ZARAUTZ J.** Ur-zikin bilketa puntu bakoitzetik instalakuntzentzako prestatutako hutsuneraino eramango dira tutuak. Perimetrotik hormari paralelo eramango dira, beharrezkoa den puntuetan zoritik irteten den koska baten bidez estaliz. Zorrotan behe solairuraino eramango, eta hemendik kale erditik doan Sare Orokorreara lotuko dira. Euri uren sarea berezia joango da. Estalkiaren geometria bidez perimetrorara bideratu, erretenen bidez jaso eta puntu ezkutuetangelditzen diren zorrotentara bideratuko dira. Hemendik behe solairuraino eramango eta Sare Orokorreara lotuko dira.


**TINTALEKU** Ur-zikin bilketa puntu bakoitzetik bi zorrotentako bateraino eramango dira tutuak. Hemendik behe solairura jeitsi eta zorupetik bideratuko dira kale erditik doan Sare Orokorreara iritsi arte. Euri uren sarea berezia joango da. Estalkiaren geometria bidez perimetrorara bideratu, jaso eta gertuen dagoen zorrotetik jeitsiko dira. Drenaiak jasotako urak ere zorrotentan bildu, jeitsi eta Sare Orokorreara lotuko dira.

### ELEKTRIZITATEA

**ZARAUTZ J.** Sare Orokorretik hartu, makina gelatik pasa, instalakuntzen hutsunean zehar igo, sabai faltsuetatik bideratu eta hartze puntu bakoitzetara eramango da. Hartziko hormen gainetik eramatea ekidingo da.

**TINTALEKU** Sare Orokorretik hartu, makina gelatik pasa, instalakuntzen hutsunean zehar jeitsi, zoruaren azpitik bideratu eta hartze puntu bakoitzetara eramango da. Sabaitik eramatea ekidingo da, argi puntuak hornitzeko espezioaz.

XEHETASUNA




Legenda:

1. Harearri harlanduzko karga horma
2. Altzairuzko IPE perfilak
3. Altzairuzko Perfil karratuak
4. Altzairuzko Kable borobilak
5. Retrakzio baxuko hormigoia
6. Zinkezko isurarrria
7. Metakrilatoa
8. Zeramikazko baldosak
9. Plot-ak
10. Malda mortairua
11. Lamina iragazgaitza
12. Erretena
13. OSB panel egiturak
14. Isolamendu akustiko-termikoa
15. Egurrezko taulak
16. Sabai faltsua eusteko gantxoak
17. Igeltsuzko panelak
18. Zurezko lama akaberek
19. Alumuniozko arotzeriak
20. Beira bikoitza aire ganbaraz
21. Egurrezko listoen zelosia

# GETARIAKO HISTORIAZ LOTURAK SORTZEN

KANPOTARREI HARTZEKO ETA BERTAKOEI ERANTZUTEKO IRISGARRITASUN ELEMENTUA





**Gratu Amaierako Lana 17/18** - Zuzendaria: **Ibon Telleria Julian** - Ikaslea: **Garazi Aranguren Alberdi**




## PLANOEN AURKIBIDEA

EDUKIA	A3 ORRIA ETA ESKALA	A1 ORRIA ETA ESKALA
<b>KOKAPENA</b>		
- KOKAPENA_Gipuzkoa, Getaria.....	-01- 1:7.500 .....	P01 1:3.500
- ENPLAZAMENDUA_H.H. mugar.....	-02- 1:1.000 .....	P02 1:500
<b>ALTXAERAK</b>		
- GETARIA_Ikuspegi orokorra .....	-03- 1:500 .....	P03 1:500
- TINTALEKU_Hegoaldeko fatxada .....	-04- 1:250 .....	P04 1:125
- TINTALEKU_Ekialdeko fatxada .....	-05- 1:250 .....	P05 1:125
- ZARAUTZ J._Iparraldeko fatxada .....	-06- 1:250 .....	P06 1:125
- ZARAUTZ J._Ekialdeko fatxada .....	-07- 1:250 .....	P07 1:125
- ZARAUTZ J._Hegoaldeko fatxada .....	-08- 1:250 .....	P08 1:125
<b>EBAKETAK</b>		
- IRISGARRITASUN ELEMENTUA_Ebaketa .....	-09- 1:250 .....	P09 1:125
- TINTALEKU_Zeharkako ebaketa .....	-10- 1:250 .....	P010 1:125
- TINTALEKU_Luzetarako ebaketa .....	-11- 1:250 .....	P011 1:125
- ZARAUTZ J._Zeharkako ebaketa .....	-12- 1:250 .....	P012 1:125
- ZARAUTZ J._Luzetarako ebaketa .....	-13- 1:250 .....	P013 1:125
<b>OINAK</b>		
- TINTALEKU_Behe solairua .....	-14- 1:200 .....	P014 1:125
- TINTALEKU_Lehen solairua .....	-15- 1:200 .....	P015 1:125
- TINTALEKU_Bigarren solairua .....	-16- 1:200 .....	P016 1:125
- TINTALEKU_Est. + ZARAUTZ J._B. s. ....	-17- 1:200 .....	P017 1:125
- ZARAUTZ J._Lehen solairua .....	-18- 1:200 .....	P018 1:125
- ZARAUTZ J._Bigarren solairua .....	-19- 1:200 .....	P019 1:125
- ZARAUTZ J._Hirugarren solairua .....	-20- 1:200 .....	P020 1:125
- ZARAUTZ J._Laugarren solairua .....	-21- 1:200 .....	P021 1:125
- ZARAUTZ J._Estalkia .....	-22- 1:200 .....	P022 1:125
<b>AURREXISTENTZIAK</b>		
- TINTALEKU_Gaur egun .....	-23- 1:250 .....	P023 1:125
- ZARAUTZ J._Gaur egun .....	-24- 1:250 .....	P024 1:125



1:7.500 0 0,75 1,50 3,25 7,50km



1:1.000 0 1 2 5 10m

MALKORBE HONDARTZA ETA PORTUA




KATRAPONA ENPARANTZA





ZARAUZ JAUREGIA



TINTALEKU LONJAK




















1:250 0 0,25 0,50 1,25 2,50m
















1:250 0 0,25 0,50 1,25 2,50m







1:250 0 0,25 0,50 1,25 2,50m





1:250 0 0,25 0,50 1,25 2,50m






1:250 0 0,25 0,50 1,25 2,50m



1:250 0 0,25 0,50 1,25 2,50m



















1:250 0 0,25 0,50 1,25 2,50m












# GETARIAKO HISTORIAZ LOTURAK SORTZEN

KANPOTARREI HARTZEKO ETA BERTAKOEI ERANTZUTEN IRISGARRITASUN ELEMENTUA



Gradu Amaierako Lana 17/18 - Zuzendaria: **Ibon Telleria Julian** - Ikaslea: **Garazi Aranguren Alberdi**



## SARRERA

Dokumentu honetan historian zehar Getarian jasan diren gertakariak eta izan duen garapena bildu nahi izan da. Honen bidez, herriaren ibilbide historikoa ulertu eta gaur egungo egoeraren nondik norakoak hobeto ulertzeko.


## HIRIGUNEAREN EZAUGARTIAK

Getaria Kantauri itsasoaren itsaslabarrean dago, Gipuzkoan. Ekialdera Zarautz aurkitzen da, hegoaldera Oikia eta Aizarnazabal eta mendebaldera Zumaia. Muga natural nagusia itsasoa du.

*"Zeruaren eta itsasoaren artean, Garate mendiaren magalean patxadatsu dago Getaria denboraren joan-etorrian, muturrean arratoi ospetsua duela, lehen San Anton uhartea zena eta gizakien lanek lurmutur bihurtu zutena."*

Getariaren herrigune historikoa Erdi Arokoen itsurakoa da eta sei kalek osatzen dute, trabeskako kalekek gurutzatuta. Kaleek izen hauen dituzte: Moila (egun Arnao Jenerala), Berraso (egun Elkano), San Roke, Txamonenea, Iribarrena, Nagusia eta Zakayo (egun Aldamar). Antzina herrigune hori harresi handi batek defendatzen zuen. Salbatore Deunaren eliza handia portuaren gaineko harrizko hormatala balitz bezala altxatzen da. Behealdetik joanda, elizara sartu nahi izanez gero nabea azpitik pasatzen den pasabidea iragan behar da (Katrapona deitzen zaiona). Garai batean leku horretan defentsarako bateriak zeuden eta gaur egun oraindik kapera txiki bat dago. Itsasoratu aurretik marinelek kapera horretan promes egiten dute eta bueltatutakoan oroigarriak zintzilikatzen dituzte bertan. Arrantzaleen ikuspuntutik, Getaria, itsasoari muga ezartzen dion itsaslabarra da (itsasotik begiratzen baitute beraiek).

Izenaren jatorriaren inguruan hipotesi ezberdinak baldin badaude ere, Arkeolan-ek Getaria toponimoa eztabaidarik gabe "Cetaria" hitz latindarretik datorrela dio, "Arrain Kontserbak egiteko Asementendua" esan nahi duena.



## BIBLIOGRAFIA

- Liburu eta informeak:
  - ANTXON AGUIRRE SORONDO. GETARIA itsasoaren, zeruaren eta mendiaren artean. Getariako udala. Zarautz, 2000.
  - ORELLA UNZUE, J.L.; ESTEVEZ RODRIGUEZ, X. Casas-Torre y Palacios de Guipuzcoa. Colegio Oficial de Aparejadores de Guipuzcoa. Donostia, 1997. 217-224. orrialdeak.
  - LEANDRO SÁNCHEZ ZUFIAURRE. Análisis estratigráfico de los alzados del Palacio Zarautz Jauregia (Getaria, Gipuzkoa). Abril 2007.
- Artxiboak eta Web orriak:
  - Archivo General de Simancas
  - Fondos Cartograficos del Instituto Geografico Nacional. S. XVI-XIX
  - Biblioteca Virtual de Defensa
  - Aunamendi Eusko Entziklopedia
  - XIX. Mendeko albuma
  - Gipuzkoa Museo Birtuala: Geroztik
  - Hiribilduak.net
  - Arkeolan.com/hiribilduak
  - Guregipuzkoa.Getaria
  - Getariako Udala



1:7.500

0 0,75 1,50 3,25 7,50km



ANTZINAROA

Lehen biztanleek leku paregabea topatu zuten bizitzeko, lurra lantzeko, ura eskuratzeko eta baita badiari arrantza egiteko ere; izan ere, irlak haizetik eta itsaso txarretik babesten du.

K.a. IV. MENDEA

Garai honetako espedizio batean Barduliako (egun Gipuzkoa) gerlariak Anibalen gudariekin Trasimeno eta Canaseko batailetan borrokatu zutela esaten da.

K.a. I. MENDEA

Garai honetan hasi ziren erromatarrak kostaldean asentamendu txikiak ezartzen kabotajerako. Gune hauek ezinbesteko ezaugarriak honakoak ziren: Itsasontziak babesean uzteko lekua izatea eta ur eta elikagaiz hornituak egotea.

II. MENDEA

Malkorbeko badiako errekatxo baten inguruan **oin laukizuzeneko eraikinak egiten ziren.**

ERDI AROA

V. MENDEA

**Solairu borobila edo obala zuten eraikuntzak** egin ziren aurrekoak ordezkatzuz.

476an Erromatar Inperioa erori zen. Gipuzkon garai hartan 4 tribu zeuden: Barduloak, Karistioak, Autrigoiak eta Baskoiak. Beranduago denak Baskoiak bihurtuko dira.

X. MENDEA

Etxebizitza eraikinek tipologia bera izaten jarraitzen zuten. **Elizaren eraikuntza eta errekatxoa desbideratzeko ubidea** dira garai honetako esanguratsuenak.

XII. MENDEA

1180an Antso VI. Jakitunak Donostiako forua fundatu zuen, Nafarroako erresumak itsasora zuten irteera sendotu nahian. Garai honetan itsas merkataritzak garrantzi handia zuen, eta kostaldeko hiriak gune estrategikoak ziren.

1200 inguruan Gipuzkoa Gaztelako erresumaren parte izatera igaro zen, Nafarrak errenta altuak eta kondizio txarrak eskeintzen baitzituen. Alfonsotso VIII. erregeak kostaldeko herriak harriz inguratzeko erabakia bultzatu zuen itsasotik iristen ziren erasoetatik babesteko.

Donostia (1180), Hondarribia (1203), Getaria (1209), Mutriku (1209), eta Zarautz (1237) izan ziren Gipuzkoako lehenengo hiribilduak. Badirudi Getariako Forua Antso VI.ak "eman" zuela, baina ituna galdu zenez, Alfonsotso VIII.ak 1209an emandako "baieztapena" hartzen da Getariako hiribilduaren fundaziozkotzat, eta **harresien eraikuntzari ekiten zaio iparraldean eta hegoaldean.**

Garai honetan **ubidea estali eta kainozulo batera desbideratu zituzten urak.** Ubide zaharraren zati bat Kale Nagusia bihurtu zen. Honen aldamenen **dorre bat eraiki zen eta jauntxoaren gunea sortu zen** bertan, elizatik gertu.

XIII. MENDEA

1250 inguruan barruragoko asentamenduak pixkanaka hiribildu izendatu ziren Gaztela-Europa konexio bidean babesguneak izateko. Garai honetan Santiago Bideko erromesen fluxu handia zegoen. Tolosa (1256), Ordizia (1256), Segura (1256), Arrasate (1260) eta Bergara (1268) dira bide honen ondorioz sortutako hiribilduak.

1270ean Alfonsotso X.a jakitunak etxeak edo ontziak egiteko behar zuten egurra Gipuzkoako edozein menditatik hartzeko baimena eman zien Getariarrei. Honekin ontziolen lana bermatu zuen. Getariako ontziola penintsula osoko garrantzitsuenetakoa zen.

XIV. MENDEA

**1345ean hasi ziren Salbatore Deuna elizako eraikuntza lanak,** aurretik bertan zegoen beste eraikin baten gainean. Eliza hau Gipuzkoan ditugun katedralen artean zaharrena izango da.

1397an Gipuzkoako Ermandadea Getariako San Salbador elizako koruan bildu zen Gipuzkoako foru legeriaren ordenantzak onartzeko. Eliza oraindik amaitu gabe zegoen. Aliantza hauek eraso ezberdinei batera aurre egiteko, kasu ezberdinen aurrean batasunez erantzuteko edota herriak elkar laguntzea hitzarmentzeko sortu ziren.

HIRIBILDUAK

**HIRIBILDUA** errege-erregina edo jauntxo baten pribilegioz sortutako giza-finkamendua da. Herriekin alderatuta hainbat pribilegio zituzten. Hiribildu-foru edo Hiri-gutun bidez sortzen ziren.

**HIRIBILDU-FORUA** hiribilduetako antolaketa juridiko eta administratiboa jasotzen zuen agiria da. Arrazoi estrategikoengatik eman ohi ziren. Erregearen oinordekoak bakoitzak kargua eskuratzan berresten ziren itun hauek.


**HIRIBILDUAREN ABANTAILAK** babes militarra, lege propioak, berezko jurisdikzioa, koroarekiko aliantza zuzena, kideen arteko berdintasun aitortua, inguruko lurraldearengan eskumenak... ziren ongi definitutako lurralde zehatz bakoitzean. Hiriak harresiz biltzen ziren, erasoetatik babesteko eta indarra eta ahalmena zutela erakusteko.

**GETARIAKO HIRIBILDUAK** ez zuen harresien beharrik ekialdetik eta mendebaldetik, itsaslabarrek babesten baitzuten alde hauetatik. Erdi Aroaren amaieran Kantauri itsasoko ekialdeko bastioi eta gordeleku garrantzitsuenetako bihurtu zen, kokapen estrategikoan baitzegoen.


Gaztelako boterearen aurrean garrantzi ekonomiko eta politiko handia zuen. Hainbat lan eta sakrifizioaren ordainetan (armak, itsasontziak eta gizonak ematearen truke), pribilegioak onartzen zitzaizkion (bidesari batzuk ez ordaintzea tartean).

Kabotajearen (portutik portura merkataritzan egunez bakarrik bidaiatuz) zebiltzan marinelentzat estrategikoa zen, 30km egiten baitzuten egunean gehienez itsasoz; egun oso bat beraz Donostiatik Getariara. Garai honetan Bilbotik Getariara oinez joateko 27 egun behar ziren.

Bere kabuz janaria ekoizteko gaitasun urria zuenez, eta merkantiak portutik inportatzeko eta bideetatik esportatzeko konexio txarrak zituenez, arrantza eta soro-langintzara mugatu zen. Baina geroz eta ospetsuagoa zen ontziolari eta bale-arrantzari esker.




II. MENDEA




V. MENDEA



X. MENDEA



XII. MENDEA



XIII. MENDEA

ARO MODERNOA

XV. MENDEA

1401ean Getarian izurrite bat pairatu zuten, biztala askoren bizia eraman zuena.

**1420an amaitu ziren Salbatore Deuna elizako eraikuntza lanak**, zabalkuntzekin hasteko.

1474an bale arrantzatik lortutako irabazien erdia kaia konpontzeko eta hobetzeko ibiltzea erabaki zen ordenantza baten bidez. Honez gain, Irla eta herriaren arteko lotura hobetu nahi zen.

XVI. MENDEA

1517an eman zen Victoria itsasontzia eraikitzeko agindua Zarauzko astilleroan.

**1519ko irailaren 20an hasi zuen munduari bira emateko bidaia Juan Sebastian Elkanok** Fernando Magallanes-en agindupean. 239 gizon irten ziren 5 ontzitan banatuta Sanlucar de Barrameda-ko portutik.

**1522ko irailaren 6an amaitu zuen munduari bira emateko bidaia Juan Sebastian Elkanok** kapitain bihurtuta. 17 gizon bakarrik itzuli ziren Victoria ontzian Sanlucar de Barrameda-ko portura 1.124 egun beranduago 38.000 milia eginda.

**1540an amaitu zen Portu Zaharra** moduan ezagutzen dena gaur egun.

1558an San Anton irlan soldatapeko soldaduak eta artilleria jartzeko eskatu zen.

1574an Gipuzkoako kostan zebiltzan kortsarioen aurrean defendatzeko gai ez ziren itsasontziak erretiratu edo irtetea debekatzeko erroldak pasatzen hasi ziren.

**1575ean amaitu zen Eliza eta San Anton irla lotzen zituen lurrezko mingaina**, malekoia, istmoa edo kai-muturra. Obra hau egin aurretik ura behean zegoenean arraldetik (harrizko geruza ia bertikalak) edo goian zegoenean txalupatan gurutzatzen zuten beste aldera. Bide hau aurrerapen handia izan zen arrantza lanetarako. Eraikuntza kosteatzeko portuan amarratzen zuten barkuei zerga berezi bat kobratzeko baimena izan zuten Getariarrek 7 urtean zehar.

1588an Espainiar Armada Garaitezinaren hondamendia iritsi zen (Ingelesak inbaditzeko saiakera zapuztuan). 503 gipuzkoar hil ziren, umezurtzak eta alargunak utziz. Gainera herriei zaurituak hartu eta zaintzeko eskatu zitzaizkien.

**1597ko urtarrilaren 5ean izugarrizko sutea pairatu zuen herriak**, 250etik 150 etxe erre zituen. Etxeak galtzeaz gain harresiaren egoera kaxkarra zegoen, kostako herria erabat ahulduta uzten zuena edozein erasoren aurrean.

1597ko planoak. Tiburcio Spanochi (Komendadorea). Suteak herria ia erabat erre ondoren berreraikitzeke plan bat proposatzen du 6 kaletan eta 3 zehar-kaletan antolatua.

XVII. MENDEA

1623ko planoak. Joan Lopez de Ibarrola (Kontadorea). Getaria kokapen estrategikoan dagoela, itsasoko eraso baten aurrean babes gutxi duela, eta etsaiek hartuz gero oso kaltegarria litzatekeela kontatzen du, bertatik Baiona arterainoko kosta guztia ikusten baita.

1634 eta 1635eko planoak. Pedro Texeira (Kartografoa). Kostako herri guztien katalogaketa egin zuen. Getariak garaian zituen defentsak eta hobetzeko proposamenak marraztu zituen.

**1635 eta 1639 artean harresiaren berreraikuntza eta hobekuntza lanak eman ziren.**


Garai honetan Espainiarren eta Frantsesez arteko 30 urteko gerra eman zen.

1637an frantsesen erasoak jasan zuen Getariak, honetatik ondo irten zen.

**1638ko erasoan frantsesek armada osoa ekarri zuten, lurreraino iritsi ziren, eta herria berriz ere suntsitua gelditu zen.** Jasandako sufrimenduaren ordainetan soldaduen deialdiari erantzundako ukoa eta hainbat zerga barkatu zitzaizkion herriari.



1667ko planoak. San German-go Dukea (Dukea). Herria aurrean dituen muinoengatik ezin dela defendatu, eta horregatik harresia ez dela konponduko esaten du. Honez gain, San Anton irlarako defentsak postuak eta ur depositu bat proposatzen ditu.

1673ko planoak. Don Geronimo Rainaldi (Ingeniaria). Getariako kontxa barkuak babesteko leku ideala dela, Donosti-Pasaia-San Juan de Luz-Fuenterrabia-Baiona-tik irteten diren barkuak bigilatzeko estrategikoa dela dio eta etsaiek hartuz gero galduak leudekela azaltzen zuen. Bestalde, herria defendatzeko zaila zela eta defentsak nola hobetu proposatzen zuen: Baluarteak harresian, zubi altxagarria portuan, kainoi-bateriak hegoaldean, baluarte eta bateriak San Anton irlan...




XIV. MENDEA


JAUREGIAREN FASEAK



XVI. MENDEA



1450



1550

**XVIII.MENDEA**

1722 eta 1725 artean konponketa berriak egin ziren portuan.

1736ko denboraleak berriz suntsitu zuen portua.

1747 Getariak ez zuen behar adina ondasun edo errenta bere betebehari aurre egiteko, irlan zuhaitzak landatzeko, bideak konpontzeko edo herriguneraino edateko ura kanalizatzeko. Dirua arrantzaleei portuko etxea alokatzetik, bale arrantzatik (1/3), alondegitik eta mendien alokairutik lortzen zuen. San Antongo artilleria agerian zegoen eta bideak oso egoera txarrean.

1783ko denboraleak berriz suntsitu zuen portua.

1793an, Konbentzio gerraren garaian, herriak ez zuen kalterik jasan, baina Donostia hartua izantean Diputazioa Getarian babestu zen. Bertan zeudela "Gipuzkoaren neutraltasuna eta independentzia" deklaratu zuten. Juntako kideak atxilotu zituzten Basileako bake hitzarmena arte.

1794ko planoak. Espia frantsesena. Herriak zituen artilleria elementuak ageri dira.

1796ko planoak. Fermin de Rueda (Ingeniari militarra). Getarian garai hartan aurkitzen diren fortifikazioak ageri dira, zaharren izenak eta "fortin" berrien kokapen eta diseinua erakutsi.

**ARO GARAIKIDEA**

**XIX.MENDEA**

**1808an Napoleonen garai inperialan, Getaria Frantsesek hartua izan zen. San Anton-go gotorlekuan zainketa postu iraunkorrak jarri zituzten.** Ingelesak laguntzera etorri ziren.

1810eko planoak. Carlos d. Friedrich (Kanpamenduko kapitaina). Getariarren egoera defentsiboa erakusten du. Ondo eta gaizki dauden elementuak katalogatuz.

1812 eta 1814ko planoak. Leonardo Bonet (Infanteri tenientea) eta Pedro Agustin Gyron (Militarra eta politikaria). Getariaren eta San Antonen krokisak, hauen egoera eta ekipamenduak ageri direlarik.

**1813an frantsesek erretiratzten hastean, minak lehertu zituzten portuan. Portua, dikea harresia, San Anton-go gaztelua, ermita, Ugarteko San Pedro ermita eta bolborategia lehertuz.**

**1814an San Antongo gazteluko harresiak bota eta artilleria Donostiara eraman ziren.**

1833an Getariako portua "Babes Portu" deklaratu zen. Garai hartan 4.500m<sup>2</sup> zituen eta haietatik 3.000 amarratzeko erabili zitezkeen (ez ziren nahikoa atrakutzen zuten barku guztientzat).

1834an Lehenengo Karlistada zela eta Getarian presentzia militarra sendotu zen. Getaria herri merkataria zen, eta bertako portuan generoa, bidaiariak eta ideia liberalak sartzen ziren.

**1835ean Herrietetako Errebala erre zuten bertatik Karlistarik ez sartzeko.**

**1836an Karlistak elizaraino iritsi, bertan babestuak zeudenak aterarazi eta hiribildua erre zuten** (135 etxetatik 16 eta 60 baserrietatik 38 salbatu ziren, batzuk ez dira berreraiki).

1838an Isabeldarrek Garate mendia hartu eta Getaria berreskuratu zuten.

**1847an kaia eta portua ia erabat berreraiki ziren.**

1848ko planoak. D. Francisco Coello (Ingeniari teniente koronel kapitaina). Espainiako eta itsasos aindiko jabetzen atlasaren Gipuzkoako zatia ageri da, bertako datu estadistiko eta historikoak bilduz. Ertz batean Getariaren garai hartako itsuraren planoak eta egoera ageri da.

1854an Colera Morbo epidemia jasan zuen herriak.

**1856an uharteak funtzio militarrik zituen. Ondoren laborantzarako deforestatu zen.**

1859an Portuaren zabalpena gestionatu zen, baina 1919 arte ez ziren amaitu obrak.


1875an Karlistek Getaria eraso zuten, baina harresiak bonbardeketari eutsi zioten.

1878ko otsailaren 11an harrapatu zuten azken balea Getariarrek Zarautarren laguntzaz.


1883an Portu Zaharra babes portu deklaratu zen.

**1885eko otsailaren 22an Alfontso XII.a erregearen aginduz harresiak eraitsi ziren.**


1897ko planoak. Komisio Hidrografikoa. Getariako kontxa, barria edo arradaren planoak da.




1650



1810



1750



1880

**XX.MENDEA**

1912an Galerna batek 170 gizon hil zituen. Kai berria eraikitzeko asmoak bizkortu ziren.

1914ko plana. Aranberri (portuen ingeniaria). Fermin Calbeton. Portu berriaren proiektua ikusten da, iparraldeko dikea luzatuz eta amarratzeko eremua 22.100m<sup>2</sup> tara igaroz.

1917an Kofradiak ostatu bat eraiki zuen portuan.

**1919an inauguratu zen portu berria.**

1922an inauguratu zen udaletxea, 4. mendeurrenean Elkanoren mundubiratik.

1924an inauguratu zen Elkanoren monumentua. Harresiaren baluarte baten gainean doa.

**1932-1935 artean N-634 eta portu berria lotzeko errepidea egin zen.** Tunela 1922rako egina zegoen eta bere atzeko guneari Txori-tonpe deitzen zitzaion; bertan "Tinta-leku" izeneko toki zegoen, non arrantzarako sareak tindatzen zituzten.

1948an eskoletarako eraikina inauguratu zen, gaur egun kultur etxea.

1953an Portu Zaharreko kai muturra desmuntatu eta bertako harriak arrapala edo ontzitegia egiteko ibili ziren.

1958 urtean bukatu ziren deskargarako kai nagusia 10 metro zabaltzearen lanak.

1963rako San Anton mendiako basoa birlandatzen hasiak ziren.

1967ko plana. Ramón Iribarren Cavanilles (Portuen Ingeniaria). Portua handitzeko proiektua ikusten da. Proiektu honetako dikeek itsas-korranteetan sortuko dituzten aldaketen ondorioz Malkorbeko hondartza erabat eraldatuko da, egun ezagutzen duguna bihurtuz.

**1973an Tintaleku eraikina eraiki zen** (proiektua 1969an egin zen).

1991ko plana. Eusko Jauriaritza. Zabalpen puntualen eta Kirol portuaren proiektua.

1994an Kirol Portua inauguratu zen.

**1995ean amaitu ziren San Salvador elizako berriztatze lanak** Ramon Ayerzaren eskutik.

1999an Arrain lonja berria inauguratu zen.

**XXI.MENDEA**

2010ean Cristobal Balenziagaren museoa inauguratu zen.

2014ean Anbulategia inauguratu zen.


Honez gain, azken urteetan **irigarritasuna hobetzeko hainbat obra** berri egin dira: parkeen egokitzapenak, eskailerak, ekailera mekanikoak, igogailuak ...

**GAUR EGUNGO EGOERA**


**HERRIA**\_Getariak gaur egun 2.818 biztanle ditu (2017). Hauen %50,77a gizonak eta %49,23a emakumeak delarik. Kulturari dagokionez, hauetatik %85a euskalduna da. Bertako dentsitatea oso altua da, 257 biztanle/m<sup>2</sup>-ko. Izan ere, udalerrira osatzen duten lurren %92a landa maldatsua da, eta beraz, herritar ia guztiak errepide nazionalaren bi alboetan bizi dira. Etxebizitza eraikin ia guztiak 3 edo 4 solairuko blokeak dira, eraikuntza berri nahiz zaharrekoak.

**LANBIDEA**\_Getariako jarduera bereizgarria arrantza izan da, eskualdeko portu garrantzitsuena izan baita urteetan. Baina kostaldeko beste herrietan bezala, lehen sektorearen garrantzia murrizten joan da azken hamarkadetan. Gaur egun jarduera ekonomiko nagusia zerbitzuak dira, herriko produktu gordinaren %47a dagokiolarik, eta industriari bestalde %27.


**TURISMOA**\_Getariako historiaren garrantziak, herri-arrantza-arearen xarmak, eszenatoki famatuak, gastronomiak eta txakolinak, eta kaleetan sortzen den giro herrikiak bisitari asko erakartzen ditu. Euskal Herri mailan bertatik ordu t'erdira bizi diren bixitariak gerturatzeko dira, bereziki asteburuetan, egun pasak egitera. Nazio mailan, bixitari ohikoenak katalanak, madrildarrak eta andaluziarrak dira, uda pasatzera etortzen direnak. Mundu mailari dagokionez, frantsesak, ingelesak, orientalak eta amerikarrak dira gehienak, egun batzuk pasatzeko gelditzen direlarik.




1940




2018



XXI. MENDEA



1597. Tiburcio Spanochi (Komendadorea).



1634. Pedro Texeira (Kartografoa).




1635. Pedro Texeira (Kartografoa).




1667. San German-go Dukea (Dukea).




1673. Don Geronimo Rainaldi (Ingeniaria).



1794. Espia frantsesa.




1623. Joan Lopez de Ibarrola (Kontadorea).




1796. Fermin de Rueda (Ingeniari militarra).




1810. Carlos d. Friedrich (Kanpamenduko kapitaina).




1811. Egile ezezaguna.



1812. Leonardo Bonet (Infanteri tenientea), eta 1814. Pedro Agustin Gyron (Militar eta politikaria).




1848. D. Francisco Coello (Ingeniarien teniente koronel kapitaina).




1860 eta 1897. Komisio Hidrografikoa.




1914. Aranberri.



1967. Ramon Iribarren Cavanilles (Portuen Ingeniaria).




1991. Eusko Jaurlaritzza.



# GETARIAKO HISTORIAZ LOTURAK SORTZEN

KANPOTARREI HARTZEKO ETA BERTAKOEI ERANTZUTEKO IRISGARRITASUN ELEMENTUA



**Gratu Amaierako Lana 17/18** - Zuzendaria: **Ibon Telleria Julian** - Ikaslea: **Garazi Aranguren Alberdi**







